

ACOSTA

Se sitúa en la ladera Levante de una pequeña loma que forman las Estribaciones del Monte Gorbea en su proyección hacia el Sur, alcanzando una altitud media sobre el nivel del mar de 633 metros.

Es pueblo milenario como queda justificado, por estar citado desde el siglo IX en el Becerro Gótico y Galicano de diversos monasterios, y por haber existido en dicho lugar la Abadía de San Vicente de Ocoizta, cuyos señores tuvieron gran importancia y jurisdicción en tiempos de los primeros obispos de Armentia. López de Guereñu en

AKOZTA

Gorbeako Mendi-Inguruek bere Hegoaldera osatzen duten lepo txiki baten Sortaldeko mendi-hegalean kokatzen da eta beraren itsas mailaz gaineko altitudea, batezbeste, 633 metrotakoa da.

Milurteko herria da, zeren IX. mendeaz geroztik monastegi desberdinetako Bezerro Gotiko eta Galikanoan aipatzen bait da; eta aipatzen da, hain zuzen ere, leku honetan egon zelako Okoiztako San Bizente Abatetxea; hemengo jaunak garrantzi eta eskumen handikoak izan ziren Armentiako lehen gotzaien garaian. López de Gue-



Croquis del caserío n.° 1



1 zk. baserriaren krokisa

Croquis del caserío n.° 2

2 zk. baserriaren krokisa

su libro: "Alava, solar de Arte y Fé", dice: "En 871 dieron Don Arroncio, el obispo Don Vivere y otros, al monasterio de San Vicente de Acosta, las iglesias de Santa Gracia y San Martín de Villa-Stabello (Estabillo), así como la mitad de una noguera en Cestabe (Cestafe)".

Este mismo autor recoge el vocablo y año con que ha sido nombrado este lugar: Ocoizta en el año 871; Ocozta en el mismo año y Acoxta en el año 1559.

El índice demográfico ha disminuído grandemente a lo largo de los últimos 130 años, así, mientras en 1850 eran 107 almas los que poblaban este lugar, en el censo de 1982 figuran 41 personas las que lo pueblan.

El caserío de este lugar lo forman tres grupos de casas, cada uno de ellos con tres o cuatro casas, y un par de caseríos alejados del lugar, al lado septentrional del término "Las Laderas", en un pequeño valle que comunica los municipios de Cigoitia y Villarreal de Alava.

Cada uno de los tres grupos que forman el lugar poseen nombre propio, siendo estos: Mendia, Ortondi y Lisalde.

Mendia es el grupo de casas que se sitúa más al Norte del lugar y lo componen dos caseríos, uno a mayor altitud que el otro. El que se sitúa más alto, el n.° 2, data del año 1827, según reza en el dintel de su acceso. Su fachada presenta una distribución simétrica de huecos. Anexa al alzado posterior, se levantó una nueva vivienda, y según inscripción de su dintel data del año 1849.

reñu-k, "Alava, solar de Arte y Fé" liburuan, hauxe dio: "Orroncio Jaunak, Don Vivere-ko gotzaiak eta beste batzuk, 871n, Akoztako San Bizente monastegiari Santa Graziako eta Villa-Stabello-ko (Estabillo) elizak eman zizkioten, eta Zestafe intxaurrondo baten erdia".

Autore honek berak badakartza herri honen izena eta urtea: "Ocoizta" deitzen da 871n; "Ocozta" urte berean eta "Acoxta" 1559an.

Demografiazko indizea izugarri jaitsi da azken 130 urte hauetan; honela, 1830ean 107 lagun bizi ziren leku honetan eta 1982ko azken zentsuan, berriz, 41 lagun.

Leku honetako etxaltea hiru etxe-taldek osatzen dute eta horietako bakoitzak hiru edo lau etxe ditu, eta baserri pare bat lekutik hurrun, "Las Laderas" mugapetik iparraldera, Zigoitia eta Legutioko udalerriak elkartzen diren haran txiki batetan.

Lekua osatzen duten hiru etxe-talde horietako bakoitzak bere izena du. Hauek dira: Mendia, Ortondi eta Lizalde.

Lekutik Iparraldeago kokatzen den etxe-taldea da Mendia eta bi baserrik osatzen dute, batek besteak baino altitude handiagoa duelarik. Altuena dagoena, 2 zk.koa, 1827koa da, beronen sarrerako atalburuan datorrenez. Beraren fatxadak baoen banaketa simetrikoa aurkezten du. Atzekaldeko altxaerari erantsirik, etxebizitza berri bat eraiki zen eta, bertako atalburuan inskribaturik dagoenez, 1849koa da.

Casa n.° 1. Aseada y tenaz fachada.
Detalle de segundo acceso en la casa n.° 2.
Casa n.° 2. Equilibrada construcción rural.

1 zk. etxea. Fatxada txukuna.
Bigarren sarreraren xehetasuna 2 zk.an.
2 zk. etxea. Nekazal eraikuntza orekatua.

Detrás de esta unidad agropecuaria se ha levantado recientemente, vivienda unifamiliar, utilizada como segunda vivienda o casa de recreo.

El segundo caserío, a nivel más bajo, el n.° 1, nos presenta una fachada totalmente encalada salvo el recerco de piedra de las pequeñas ventanas y acceso. El horno de pan se sitúa en la cabaña, frente a la casa-vivienda.

Nekazaritza eta abelazkuntzako unitate honen atzekaldean berriki familia bakarreko etxebizitza bat eraiki da eta berau bigarren etxebizitza edo jolas-etxe gisa erabiltzen da.

Bigarren etxeak, maila beheragoan dagoenak, 1 zk.koak, erabat kareztatutako fatxada aurkezten digu, dena kareztatua leiho txikien harrizko azpadura eta sarrera izan ezik. Ogia egiteko labea etxordean aurkitzen da, etxebizitzaren aurrean.

Casa n.° 3. Acompasada ordenación de huecos.

3 zk. etxea. Baoen ordenazio konpasatua.

El grupo central de casas, responde al nombre de Ortondi y lo componen cuatro casas-viviendas.

El caserío catalogado con el nº 3 presenta notable voluminosidad y dispone como unidad agropecuaria que es, de varias edificaciones anexas o próximas a la casa principal, como son: cuadra, cabaña, zona de trabajo y estercolero. El año de su construcción fué en 1828, según reza en el dintel de su acceso. Atravesado éste, nos hallamos en el portal desde el que se accede a la cocina, a mano izquierda; a la caja de escaleras en su frente; y a cuadras y comedor, a mano derecha. En el piso se situan las habitaciones, ocupando la parte anterior de la casa.

El añadido en el alzado izquierdo se hizo hace unos treinta años, para albergar cuadras y almacén, aunque, posteriormente, se ha acondicionado para vivienda con una pequeña cocina en su planta baja.

Erdiko etxe-taldeak Ortondi izena darama eta lau etxebizitzak osatzen dute.

3 zk.arekin katalogatutako baserria buelo aski handikoa da eta, nekazaritza eta abelazkuntzako unitatea den aldetik, baditu etxe nagusiari erantsiriko zenbait eraikin, hala nola: ikuilua, etxordea, lan-lekua eta simaurtegia. Eraiki, 1828an eraiki zen; hala dator idatzia beraren sarrerako atalburuan. Berau zeharkatuz gero, ataurrean aurkitzen gara eta hortik sukaldera sartzen da, ezkerretara; eskailera-kaxara, beraren aurrekaldean; ikuilu eta jangelara, eskuinetara. Pisuan daude gelak, etxearen aurreko partean.

Ezkerreko altxaeran erantsitako zatia duela hogeita hamar urte inguru egin zen, berori ikuilu eta lastategi gisa erabiltzeko, nahiz eta gero etxebizitzarako moldatua izan, behe-oinean sukalde txiki bat duelarik.

Casa n.º 4. Después y antes del remozamiento.

4 zk. etxea. Berrikuntzaren ondoren eta lehen.

Detrás de ésta, al otro lado del camino, y a nivel superior, se levanta casa de reciente construcción. En el vértice que forman dos caminos al levante del caserío n.º 3, se levanta la casa-concejo, sin ningún valor arquitectónico.

El caserío n.º 4, de planta rectangular, se ha remozado hace pocos años y ha sido adaptado a las necesidades que marca la explotación agrícola-ganadera, en la actualidad. Así, la pequeña cabaña que contenía al horno de pan, se derrumbó, ocupando su lugar, así como, gran parte de la zona de trabajo, un alto almacén. En su parte posterior se ha anexionado cobertizo con tejado de uralita donde se cobijan las ovejas.

Berorren atzekaldean, bidearen bestaldean, eta goragoko mailan, eraikuntza berriko etxe bat altxatzen da. 3 zk.ko baserriaren sortaldera dauden bi bidek osatzen duten erpinean, kontzejua altxatzen da. Ez du inolako balio arkitektonikorik. tektonikorik.

Baserri 4 zk.koa, oinplano laukizuzenekoa, duela urte gutxi batzu zaharberritu zen eta gaur egun nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapenak eskatzen duen beharrizanetara moldatua izan da. Horrela, lehen ogia egiteko labea zegoen etxordea bota egin zen eta hor orain lan-lekuko zati handi bat eta biltegi garai bat aurkitzen dira. Beraren atzekaldean estalpe bat erantsi zaio, uralitazko teilatuarekin. Artegi gisa erabiltzen da.



Casa nº 5: Limitada altura en la fachada.
Detalle de la cocina baja.

5 zk. etxea altura mugatua fatxadan.
Beheko sukaldearen xehetasuna.

El caserío nº 5 rompe la tipología caseríl del lugar al situarse el caballete de la cubierta paralelo a la fachada. Dos son las viviendas que se cobijan bajo la misma cubierta. A destacar en una de ellas las dos piezas altas de las jambas del acceso, a modo de ménsulas, que acortan la luz del dintel. La cocina de una de las viviendas conserva la cocina-baja apoyada en uno de los muros y la correspondiente campana de escape de humos, así mismo, conserva el txitxilu o escaño con la mesa plegadiza.

Baserri 5 zk.koak, beronen estalkiko galdurra fatxadarekiko paraleloa bait da, lekuko baserri--tipologiarekin hausten du. Bi etxebizitza dira estalki bat-beraren azpian aterpetzen direnak. Horietako batean nabarmentzekoak dira sarrerako zangoen bi pieza garaiak, mentsula gisakoak, atalburuko argia mozten dutenak. Etxebizitza horietako bateko sukaldeak murruetako batean sostengatutako behe-sukaldea eta beroni dagokion keak ihes egiteko kanpaia gordetzen ditu; txitxilua ere gordetzen du, mahai tolesgarriarekin.

Casa n.° 6. Desplazamiento de vanos hacia el abrigado rincón.
Casa n.° 7. Toscos apaños en el encuadre de los vanos.

6 zk. etxea. Baoen desplazamendua txoko babesturantz.
7 zk. etxea. Konponketa oiesak baoen enkoadraketan.

El caserío n.º 6 dispone de planta rectangular con el caballete de su cubierta paralela a fachada principal. Muy apreciables son las partes destinadas a vivienda a cuadras y pajar. La cabaña, así como la era, se hallan en la parte posterior del edificio principal.

El tercer grupo de casas que conforman el lugar se halla en torno a la iglesia, y de ésta ha tomado el nombre genérico de Lizalde.

Dos son los caseríos que conforman este grupo: el catalogado con el n.º 7, de descuidado aspecto debido a encontrarse cerrado. A destacar la distribución simétrica de los huecos de la fachada, así como, el recerco de los mismos a base de toscas y notables dimensiones de su carpintería rasante. Frente a la fachada y muy próxima a ella se halla edificación auxiliar donde se encuentra, entre otras dependencias, la destinada al horno de pan.

Baserr 6 zk.koak, oinplano laukizuzenekoa du, beraren estalkiko galdurra fatxada nagusiarekiko paralelo duena. Estimagarriak dira etxebizitza gisa eta ikuilu eta lastategi gisa erabiltzen diren zatiak. Etxordea, baita larraina ere, eraikin nagusiaren atzekaldean aurkitzen dira.

Lekua osatzen duen hirugarren etxe-taldea elizaren inguruan aurkitzen da eta hemendik datorkio Lizalde izena.

Bi baserriz osaturik dago talde hau: 7 zk.arekin katalogatua da bata, itxita egotean abandonatu-itxura daukana. Aipatzekoak dira fatxadako baoen banaketa simetrikoa eta berorien azpadura, berorren zurlana sestran neurri trauskil eta aski handiez egina delarik. Fatxadaren aurrekaldean eta bertatik oso hurbil, eraikin osagarri bat aurkitzen da eta hor, beste barnetegi batzuren artean, ogia egiteko labea dago.

Casa n.º 8. Parcheada y descarnada fachada.

8 zk. etxea. Fatxada aterpetu eta biluzia.

El caserío nº 8 es una unidad agropecuaria cuya fachada principal es amplia y un tanto descuidado su revoque. Un simpático jardín adorna la parte anterior a la casa que se halla perimetrado por simple malla metálica. La cabaña, silos y otras dependencias se sitúan al costado y parte posterior, quedando la zona de trabajo delante de la cabaña.

La iglesia parroquial es el edificio más al Sur de todo el lugar y dispone de una amplia panorámica del Valle de Cigoitia. Aunque no hay restos que corroboren la ubicación en éste mismo solar de la antigua abadía de San Vicente de Ocoizta, suponemos que éste sería su emplazamiento por disponer de amplia panorámica del Valle, arbolado en su parte noroeste, manantial a nivel más bajo -en la finca que se halla al otro lado del camino que nos ha traído hasta este lugar-, y el término denominado "Ardanza", debajo y al Sur del solar.

Baserri 8 zk.koa, da bestea, nekazaritza eta abelazkuntzako unitate bat dena. Berorren fatxada nagusia zabala da eta beraren entokadura zertxobait utzia bezala dago. Lorategi zinpatiko batek apaintzen du etxearen aurrekaldea, zeina burdinsare metaliko soil batez perimetratua aurkitzen bait da. Etxordea, belarzuloak eta beste barnetegiak alboetan eta atzekaldean kokatzen dira, lan-lekua etxorde aurrean geratzen delarik.

Parroki eliza da lekuko eraikinik Hegoaldekoena, Zigoitiako Haranaren panoramika zabal bat erakusten duena. Okoiztako San Bizente abatetxe zaharra leku horretan bertan kokaturik egon zela egiazta lezaketen hondakinik ez baldin badago ere, hor egongo zela pentsatzen dugu, zeren bertatik bistatzen bait da Haranaren panoramika zabala, iparmendebaldean zuhaitzez betea, beheragoko mailan iturria, leku honetara gakartzan bidearen bi aldetara aurkitzen den finkan; hantxe dago, halaber, "Ardanza" mugapea, orubearen azpikaldean eta Hegoaldera.



Iglesia parroquial:
— Torre.
— Detalle de escudete.
Lavadero. Hoy desangelado escenario.

Parroki eliza:
— Dorrea.
— Armarritxoaren xehetasuna.
Ikuztegia. Gaur grazia galdua duen eszenategia.

La iglesia parroquial conserva su advocación a San Vicente. Es de planta rectangular con torre de dos cuerpos al pie del templo. Anexa al alzado Sur de éste se encuentra la casa cural. El cementerio ocupa la parte anexa al alzado Norte y en el dintel de su acceso se halla grabado pequeño escudete.

Parroki eliza San Bizenteren izenean eraikia da. Oinplano laukizuzenekoa da, bi gorputzeko dorrearekin tenpluaren oinetan. Beronen Hegoaldeko altxaerari erantsirik, apezetxea aurkitzen da. Kanporatua dago Iparraldeko altxaerari erantsiriko partean eta beraren sarrerako atalburuan armarritxo bat aurkitzen da grabaturik.



Caserío Amarreko-Sortea. Vista de conjunto.
Caserío Amarreko-Parte. Remozada fachada.

Amarreko-Sortea baserria. Bista orokorra.
Amarreko-Partea baserria. Fatxada berritua.

Los dos caseríos apartados del núcleo de Acosta se ubican en el bonito valle que comunica los ayuntamientos de Cigoitia y Villarreal y cuyo paisaje, en el que predomina el color verde de sus praderas, salpicadas por varios caseríos dispersos unos de otros, confieren al valle un aspecto pintoresco y propio de las zonas o valles más singulares del País Vasco.

Uno de ellos recibe el nombre de Amarreko-parte. Su fachada es simétrica salvándose del revoco el recerco de huecos y las partes más salientes de alguno de los mampuestos de su alzado. Varias construcciones auxiliares se levantan en su entorno. El otro caserío, el Amarreko-sortea, dispone de fachada, así mismo, simétrica y con el mismo tratamiento que el que reciben la mayoría de los caseríos alaveses. Con los años, van añadiéndose nuevas construcciones auxiliares para albergar y acondicionar a las exigencias actuales, las diferentes dependencias, para la explotación ganadera.

Akoztako herritik hurrun dauden beste bi baserriak, Zigoitia eta Legutioko udalak bateratzen diren haran politean kokatzen dira; horko paisajearen belazetako kolore berdea nagusitzen da, han eta hemen zenbait baserri barreiatuta daudelarik. Guzti honek haranari ikuspegi pintoreskoa ematen dio, Euskal Herriko zona edo haran berizienek duten ikuspegi bera.

Horietako batek "Amarreko-parte" du izena. Beraren fatxada simetrikoa da eta entokaduratik baoen azpadura eta beraren altxaerako harlangaitzetako baten zatirik irtenenak salbatzen dira. Beraren inguruan zenbait eraikin osagarri altxatzen dira. Beste baserriak, "Amarreko-sortea" izenekoak, honek ere fatxada simetrikoa du eta baserri arabar gehienek hartzen duten trataera berberaz egina da. Urteak joan atzala, eraikin osagarri berri batzu erantsi zaizkio, azienda-ustiapenerako barnetegi desberdinak moldatu ahal izateko gaur egungo eskabideen arabera.